

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza **info**

Asteazkena, 2013ko maiatzaren 1a. IX. urtea. 2.586. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Euskaraz bizi ez direnei begirako bi jarduera antolatu dituzte, Tolosan

Aitzol Udal Euskaltegian ate irekien saioak arabieraz eta gaztelerez, eta Jon Maiaren hitzaldia antolatu ditu euskararen mahaiak **03**



Aitzol Udal Euskaltegian egin zuten agerraldia, atzo. I. URKIZU



Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak 2012ko aurrekontuen likidazioa aurkeztu zuten. ITZEA URKIZU

## Orendainen emango diote hasiera Mundumob egitasmoari

‘Eman hartu nahi duzun mundua’ lelopean herrialde osoa zeharkatuko duen proiektua aurkeztu du Gipuzkoa Zero Zaborrek **02**

## Espainiako bandera ez dute zintzilikatuko Gazteluko udaletxean

Donostiako epaitegiak udalari eman dio arrazoia; udalak errespetua eskatu du eta «inposizioaren» aurka agertu da **05**

## 6,2 milioi eurotan jaitsi du zorra Tolosako Udalak 2012. urtean

Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak 2012ko aurrekontuen likidazioa aurkeztu dute, bi helburu bete dituztela adieraziz: «Izaera sozialeko gastuak mantenduz, zorra murriztea lortu dugu» **03**



175 kiloko harriarekin ariko dira. M.I.

## Elkartasun Eguna ospatuko dute Adunan, igandean

Aiztondoko Herrira mugimenduak egun osoko egitaraua prestatu du euskal preso eta iheslarien alde, eta arratsaldean VII. Gorostidi Harria jokatu dute hamar harri-jasotzailek **04**



Ibarrik igandean bertan pasako da Mundumob, eta jada burutu dituzte zenbait entsegu. HITZA

# Jasotako mundua hurrengo belaunaldiei uzteko egitasmoa

Gipuzkoa Zero Zaborren Mundumob egitasmoa Orendainen hasiko da larunbat honetan, 12:00etan

## Itzea Urkizu

Iraunkortasuna aldarrikatzea izango da, finean, Gipuzkoa Zero Zaborrek aurkeztu duen Mundumob egitasmoaren funtsa. Horrela, eta *Eman hartu nahi duzun mundua* lelopean, Gipuzkoa osoa zeharkatuko du proiektuak.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «herritarrak eta eragileak iraunkortasun printzipio horri atxikitzea» nahi dute, eta hori izango da, beren helburuak eta jarduerak zehatzak abiarazteko oinarria.

Mundumob egitasmoaren hari nagusia herritarrek gidatuko dute, baina koreografia duen kantu batek lotuko ditu gipuzkoar guztiak. Abestia bera, Karlos Gimenezek sorturikoa da, eta Jon

Maia bertsolariak jarri dizkio, doinuari, hitzak. Ahotsa, berriz, Ze Esatek musika taldeko Jabi Rodilek eta Gose musika taldeko Ines Osinagak jarriko diote Mundumob-i, Mikel F.Kruzaga teknikariaren laguntzaz. Azkenik, milaka gipuzkoarrek dantzatuko duten koreografia Mikel Erguinek sortu du.

Musika, ahotsa nahiz dantza uztartzearekin batera, ordea, eskuz esku ibiliko da eman eta hartu nahi duten mundua; mundu bola batek ere bira emango dio, beraz, Gipuzkoari.

Aipatzekoa da, Gipuzkoa Zero Zaborrek «giro parte hartzaile eta ludikoan» aurrera eman nahi duen proiektua dela, eta egitasmoa «etorkizun hobea baten isla» izatea dutela helburu: «Aldarrikatzen dugun baikortasuna eta konpromisoa izango dira Mundumob-en erdigunean».

## Abiapuntua Orendainen

Pasa den larunbatean Zubietan aurkeztu zuen, Gipuzkoa Zero Za-

borrek, Mundumob egitasmoa. Hasiera, ordea, Tolosaldean bertan izango da, Orendainen.

Antolatzaileen arabera, «Gipuzkoako herririk handiena da Orendain, handitasuna herritarren konpromisoan neurtuz gero». Izan ere, Orendain da Euskal Herriko lehenengo zero zabor herria, eta hondakin organiko guztia herrian bertan tratatzen dute, ongari bihurtuz. Ondorioz, orendaindarrek ez dute beste herrietara hondakin organikorik bidaltzen.

Mundumob egitasmoa antolatzaileek, beraz, Orendaingo kontzientzia «eredugarria» nabarmenduz, larunbat honetan bertan hasiera emango diote munduko bolaren ibilbideari, 12:00etan, Orendaingo plazan.

Amaiera, berriz, nolabait beste muturrean den Gipuzkoako herrian, Donostian, emago diote Mundumob-i: «Gipuzkoako herririk handiena da Donostia, sortzen duen zabor kopuruari begiratuz gero. Praktika onak nahiz eredugarriak ezinbestean aplikatu behar dira, beraz, eta Donostiak 2016rako Europako Kultur Hiriburua izateko duen erronka

politari, gure ekarpena egin nahi diogu guk ere, Donostia zero zabor norabidean jartzeko». Ekainaren 8an amaituko da, beraz, Mundumob, Donostian ospatuko duten herrialde mailako festarekin.

Tolosaldean, ordea, orendaindarrez gain, beste hainbat herritarrek ere izango dute, *Eman hartu nahi duzun mundua* leloari jarraituz, koreografia dantzatzeko aukera. Igandean, esaterako, Ibarrik pasako da egitasmoa, 12:00etan.

Eguna iritsi aurretik, zenbait entsegu burutu dituzte jada ibarrikarrek, eta igandera bitarte ere beste bi egingo dituzte: ostiralean izango da lehena, 18:30ean, Iba-

rrako plazan, eta eguraldiak laguntzen ez badu, Emeterio Arreseko frontoian burutuko dute entseguak. Azkenik, igandeko grabazioaren aurretik, 10:00etatik 11:30era bitarte entsegu orokorra egingo dute.

Tolosaldeko herritarrek, berriz, hilabete barru parte hartu ahal izango dute, iraunkortasunaren aldeko koreografia jendetsuan, eta Tolosa Zero Zabor taldeko kideek jakinarazi dutenez, emango dute entseguen berri zehatzagorik.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

■ **Bideoa.** Ikusi, Ibarra Zero Zabor taldeak igandeko Mundumob iragartzeko eginiko bideoa.



Eskuz esku ibiliko den mundu bola aurkeztu zuten Zubietan. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa dutenek, deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefonoetara.

# Tolosako Udalak 6,2 milioi eurotan murriztu du zorra 2012. urtean

Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak 2012ko aurrekontuen likidazioa aurkeztu dute

## Itzea Urkizu

Tolosako Udalak 2012ko aurrekontuen likidazioa aurkeztu berri du, eta besteak beste, udalaren zorra 6,2 milioi eurotan murriztu dutela azaldu dute Ibai Iriartek eta Lore Agirrek: «Oso garrantzitsua da, herritarrek, berena den udala zein egoeratan dagoen jakitea, eta are gehiago egungo krisi egoeran», azpimarratu du Iriarte alkateak.

Horrela beraz, 2012ko aurrekontuak egin aurretik zehaztutako bi helburu bete ditu Tolosako udal gobernuak: «Batetik, aurrekontuaren kontrola berreskuratu du udalak, izaera sozialeko gastua mantenduz, eta bestalde, zorra murriztea lortu dugu».

Helburu hauek lortzeko lehen

eragilea, 2012an diru sarrera arruntak igo izana izan da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga aldatetaren ondorioz, zuzeneko zergak, zeharkako zergak nahiz tasak igo egin ziren iaz, eta enplegu plana burutu ahal izateko transferentziak ere jaso zituen udalak, aldundiaren aldetik. Horrela, 2012an sarrera arruntak 147.705 eurokoak izan dira.

Kapital sarrerak, ordea, jaitsi egin dira 2012an, Elosegi parkearen zorra mailegurik eskatu gabe ordaintzea erabaki baitzuen udalak; 2012. urtean, 3 milioi euro ordaindu dituzte. Honenbestez, diru sarrera orokorrak jaitsi egin ziren iaz, 1.920.600 eurotan.

## «Departamentu guztien lana»

Diru sarrerak jaitsi egin diren arren, 2012an gastuak ere murriztu egin ditu Tolosako Udalak, nabarmendu dutenez.

Batetik, gastu arrunta 2.298.565 eurotan jaitsi dute, pertsonal gastuari dagokionez: «Madrilgo gobernuak hartutako neurrien ondorioz, abenduko ordainsariari



«Etorbizuneko egitasmoak abiarazteko moduan» daudela nabarmendu dute Iriartek eta Agirrek. I. URKIZU

dagokien kopurua dago hemen; udalak diru hori gorderik du bere gerakinetan, eta langileei ordainsaria ematea aztertzen ari da», azaldu du Lore Agirrek.

Horrez gain, ordea, kapital gastuak ere 632.625 euro jaitsi dira 2012 osoan, eta beraz, 2.930.890 euro gutxiago gastatu zituen, iaz, Tolosako Udalak.

Honenbestez, 2012ko aurrekontuen emaitza positiboa izan da, eta udal ordezkariak «etorkizuneko egitasmoak sortu eta abiarazteko moduan» daudela azaldu dute. Izan ere, iazko aurrekontuen emaitza 1.010.285 izateaz gain, Elosegi parkeko desjabetzearen zorraren zatirik handiena ordaindu dute, eta Santa Luziako desjabetzearena ere bai; udalaren zorra 4.468.535 eurotara jaitsi dute, beraz.

Ibai Iriartek eta Lore Agirrek,

## ↓ 2012ko aurrekontua

# +1 milioi

■ +1.010.285 milioi euro.

2012. urteko aurrekontuaren emaitza positiboa izan da, sarrerak jaitsi diren arren, gastuak murriztu egin direlako. Zorra ere 6,2 milioi eurotan jaitsi da.

udaleko departamentu eta langile guztiek aurrekontuaren emaitza on hau lortzeko egin duten lana nabarmendu dute: «Oparaldi garaian zorpetzea izugarria izan zen, eta horrek lan egiteko beste ohitura batzuk dakartza. Esaterako, 2003. urtean zor bizia 405.358 eurokoa zen bitartean, 2011n 12.144.467 euroko zorra zuten udalak.

Honen harira, «iaz langile guztiek aurrekontu murriztagoekin lan egin behar izan zuten, eta esfortzu eta konpromiso horri esker arnasa hartu ahal izan du udalak», Iriarteren arabera.

2011ko 21 milioi euroko zorra 6,2 milioi eurotan murriztuz, beraz, 14,8 milioi euroko zorra du, gaur egun, udalak. Gaur egun, Elosegi parkea eta Santa Luziako lursaila dira, Tolosako Udalak dituen zor garrantzitsuenak.

Elosegi parkearen kasuan (8 milioi euro, guztira), milioi 1 euro ordaindu beharko du aurten udalak, eta beste bi urtetan kopuru bera ordainduz, desjabetzea ordainduko dute; erdia ordaindu dute jada. Era berean, Santa Luziako eremuaren zatirik handiena ordaindu duten arren, epaiaren zain daude, geratzen dena ordaintzeko.

# Tolosar guztiek euskara erabiltzerainoko jauziaren bila

Tolosako euskararen mahaiko eragileek euskaraz ez dakitenei begirako bi hitzordu aurkeztu dituzte

## I. Urkizu

Tolosako euskararen mahaia osatzen duten eragileek, euskaraz bizi ez direnei begirako bi jarduerak antolatu zituzte; Aitzol Udalen Euskaltegian egin dute bi hitz-

duen aurkezpena, eta «euskararen alde egotetik, euskara erabiltzera bultzatu nahi ditugu tolosarrak», nabarmendu dutenez.

Galtzaundi Euskara Elkarteak Idoia Lahidalgak, azken hamarkadan Tolosan euskarak izandako aurrerakada nabarmendu du: «Tolosak jakin du euskarari eusten, eta azken 10 urteotan sekulako aurrerakada egin du. Gaur egun, %85ekoa da ezagutza maila, Tolosan; %65ak arazorik gabe egiten du, eta %21 inguruk, berriz, erabiliz nahiz ulertuz, komu-

nikatzeko adina gaitasun du euskaraz».

Honen harira, 2012ko neurketen arabera, aipatzekoa da euskararen erabilera %43koa dela tolosarren artean, eta tartean haurrik baldin bada, berriz, %65 ingurura igozten dela.

Horrela, «Tolosa euskararen benetako hiri» izatera iristeko, euskaraz ez dakien Tolosako herritarren %14 hori animatu nahi izan dute Mikel Uzkudunek, Inaki Irazabalbeitiak eta Idoia Lahidalgak, ageraldian: «Euskal Herriko eskualde gutxiak dituzte, Tolosadearen gisako baldintza soziolinguistikoak, euskararen hiri nahiz eskualde izateko; gainera, Euskal Herriaren bihotzean dago, eta leku gutxitan ez bezalako hobekuntza suertatu da azken hamarkadetan. Horregatik, demon artean eraiki behar dugu euskararen hiria».

## Enpatiaz, euskara gertuago

Tolosako euskararen mahaikiak, bi hitzordu nabarmen antolatu ditu, euskaraz ez dakiten herritarrek euskarara eta euskal kultu-

rara gerturatzeko helburuz. Batetik, Jon Maiaren hitzaldia izango da, datorren maiatzaren 9an, La Jara elkartearen, *Riomundo, historia de una familia emigrante* izenburupean.

Kulturgile eta bertsolari zumaiaurren guraso eta arbasoak Extremadurakoak dira (Espainia), eta izen bereko eleberria idatzi zuen, bere gurasoek euskaraz ez jakiteak, eta familia eraldun bateko kide izateak sorrarazi zizkion konplexuak kontatuz. «Horrela, hitzaldiaren ostean, hausnarketak sustatu nahi ditugu, bertaratuek euskararekin nahiz euskal kulturarekin bizi izandakoak kontatu dituzten, eta nolabait enpatia sor dadin», azaldu du Lahidalgak.

Bigarren hitzordua, berriz, Aitzol Udalen Euskaltegiko ate irekien jardunaldia izango da; maiatzaren 14tik 16ra bitarte, arabieraz nahiz gaztelaz burutuko dituzte bisitak, eta Aitzolen eskaintza akademikoa, nahiz erakina erakutsiko dizkiete bertaratuei, besteak beste.

Horrela beraz, bi jarduerak

hauekin batera, euskara jakiteaz gain erabiltzeko deia egin dute, euskararen mahaia osatzen duten Galtzaundi Euskara Taldeak, Aitzol Udalen Euskaltegiak, Banaiz Bagara Elkarteak, Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak, Kontseiluak, Hirukide Ikastetxeak, Inmakulada Ikastetxeak, Lanbide Heziketak, Laskorain Ikastolak, Samaniego Ikastetxeak eta Orixe Ikastetxeak: «Korrikak euskararen elkarri emateko deia egin berri du, eta Tolosan ospatuko den Kilometroak jaiak ere, euskara ahora eramateko aldarria zabalduko du».

o tolosa@hitza.info

## ↓ Hitzorduak

■ **Maiatzaren 9a, osteguna.** La Jara elkartearen, 19:30ean, Jon Maiaren *Riomundo, historia de una familia emigrante* hitzaldia.  
 ■ **Maiatzaren 14a eta 16a.** 18:30ean, ate irekiak Aitzol Udalen Euskaltegian, arabieraz eta gaztelaz.



Aitzol Udalen Euskaltegian egindako agerraldia, irudian. I. URKIZU



# Ikaztegietako Haurreskola irekita mantentzeko hiru haur behar dituzte

Amezketan, Ibarra, Villabonan eta Elduainen matrikula epeak maiatzean zabalduko dituzte

## Asier Imaz

Ikaztegietako Haurreskola arriskuan dago. Udaletik esan dutenez, hiru haur behar dira irekita mantendu ahal izateko. «eta momentu honetan, ia ez dago haurrik». Haur eskola ixtea nahi ez dutenez, beharrezkoa zaien kopurua bilatzeko deialdia zabaldu dute Ikaztegietako Udaletik, «haurrak herrikoak edo kanpoak» izan daitezkeela gogoratuz.

Herritarrei ahalegin berezia eskatu diete udal ordezkariak: «Familiakoak edota inguruko herrietakoak animatuz Ikaztegietako Haurreskolan izena ematera».

Eskualdeko hainbat haur eskoletan bezala, Ikaztegietan ere matrikula egiteko epea maiatzaren

**Herriko nahiz kanpoko gurasoengana zuzendu da Ikaztegietako Udala**

2an zabalduko da. Interesa duen edonork, «ateak zabalik izango ditu Ikaztegietako Haurreskola ikusi eta hezitzailearekin hitz egiteko», jakinarazi dute udaletik.

Hitzordua lotzeko, 943 65 03 46 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango da, edota haur eskola bertara ere ager daiteke. Ikaztegietako Udaletik azaldu dutenez, telefonoz zalantzak argitzeko aukera ere egongo da.

Maiatzean hasiko den matrikulazio epearen garrantzia handia dela esan dute udal ordezkariak, izan ere, «hiru haur nahikoa da irekita mantentzeko, baina behin itxiz gero, berriz ireki ahal izateko haur kopurua handiagoa izango da».

Ikaztegietakoak bezala, Elduaingo Udalak ere herriko haur eskolaren inguruko informazioa zabaldu du. Matrikula epea maiatzaren 2an zabalduko da, eta 13ra bitarte, haurren izenak emateko aukera egongo da. Eskaerak jaso eta inprimakiak entregatzeko



Ikaztegietako Haurreskola mantentzeko ahaleginean da udala. HITZA

haur eskola bertara joan beharko da. Elduaingo Haurreskola publikoaren ordutegia, 07:30etik 18:30erako izango da. Zerbitzua irailaren 5ean jarriko dute martxan, eta haur bakoitza gehien zortzi ordu egon ahaliko da haur eskolan, eguneko. Horrez gain, hezitzaileekin hitz egin nahi duenak ondorengo telefono zenbakira deitzea nahikoa izango du: 943 68 35 89ra.

**Haur eskoletan izena emateko maiatzaren 2tik 13ra bitarteko epea jarri dute**

Amezketan, 2012-2013. urtean jaiotako haurren gurasoei egin die deialdia. Maiatzaren 2tik 13ra bitarte, biak barne, herriko haur eskolan matrikula egiteko aukera egongo da.

Informazio gehiagorako [www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net) helbidea zabaldu dute Amezketatik, eta haur eskola San Bartolome kaleko 27. enean dagoela gogoratu dute, lehen solairuan. Telefonoa, argibideetarako, ondorengo da: 943 65 09 92.

## Ibarra eta Villabona

Ibarako Kukumiku Haurreskolan eta Villabonakoan izen emateko epeak maiatzaren 2tik 13ra bitartekoak dira, gainontzeko herrietan bezala.

Matrikula egin aurretik, Ibarako Kukumiku bertatik bertara ikusi nahi duenak, atek zabalik izango dituela azaldu dute Ibaratik. Horretarako maiatzaren 6an hitzordua jarri dute, 17:00etatik aurrera. Bisita honetan hezitzaileekin hitz egiteko aukera egongo da.

Villabonako Haurreskolaren kasuan, gurasoen arreta ordutegia ondorengo izango da: 09:30etik 11:00etara. Informazio gehiago nahi duenarentzat, 943 69 20 92 telefono zenbakia jarri dute aukeran.

# SARRERAK

# 1€

**Denok Bera Bera eskubaloi taldea animatzera maiatzaren 4an!**

## LIGAKO PARTIDA ERABAKIORRA!



**Apirilaren 28tik aurrera**  
[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

## Irudia >



# GENERO IKUSPEGITIK ARI DIRA ZAINTZA AZTERTZEN

Saiaz mankomunitateak bi ikastaro antolatu ditu zaintza, genero ikuspegitik lantzeko helburuarekin. Ezkerreko irudian dauden lehenengo taldekoak, langile profesionalak, martxoan zehar egin den ikastaroan hartu

dute parte. Hauen artean, etxeko langileak eta eguneko zentroetakoak zeuden. Bigarren taldea eskuleneko irudian ageri da, eta egoiliarrek, senideek, eta haurrerak familiek osatu zuten. Hauen ikastaroa maiatzaren

17an bukatuko da. Mankomunitatetik azaldu dutenez, ikastaro hauek oso dinamika parte hartzailearekin gautzen ari dira. Guztiak, bai lehen taldearenak eta baita bigarrengoarenak ere, Bidegoianen egin dituzte. HITZA

# Gazteluko udaletxean ez dute Espainiako bandera jarriko, «froga faltagatik»

Epaitegiek ez diote arrazoirik eman Espainiako estatuari; helegitea sartzeko aukera dago

**Asier Imaz** Gaztelu

Espainiako Estatuako Administrazio Orokorraren eta Gazteluko Udalaren arteko talka apirilaren 19an amaitu zen, Donostiako auzitegiaren epailearen erabakia eskuetan, Gazteluko udaletxean ez dute Espainiako banderarik jarriko, ez behintzat ondorengo bi edo hiru urteetan. Hala eta guztiz ere, borrokaldi gehiago aurreikusten dira epaitegiaren, eta etorkizuneari hauek zer esaten duten ikusi behar da.

Gazteluko udal ordezkariak gustura hartu dute albistea, eta «herri baten sinboloak ezin direla inposatu» esan dute. «Sinboloak, bereziki bandera eta armarrak, identitatea, batasuna eta elkartzuna adierazten dute, herri baten bihotza dira» gaineratu dute udaletik Donostiako auzitegiaren epaia baloratzeke ulean. Udalarantz, «sinbolismo horiek gizar-teak onartzen duenaren balore zibil garrantzitsua hartzen dute». Balore horiek honakoak dira Gazteluko udal ordezkariak: «Herri bat, komunitate plurala baina batua izatea, eta bere identitatea kontzeptu baikor eta irekian sentiaraztea lortzen du, parte aktiboa hartzen duen gainontzeko eremuekiko harremana aberastuz eta hobetuz».

Epaiketean aurrez aurre izan duten Espainiako Estatuari ere mezu garbia bidali nahi izan diote udaletik: «Gazteluk bere bandera eta sinboloa ditu, eta hauek herriak erabakitzen duen bakoitzean azalduko ditu. Horregatik, errespetua eskatzen dugu Gazteluko herriarentzat, Euskal He-

rrarentzat, inork ez diezaion berea ez den identitatek ezarri».

Donostiako administrazio auzitegiaren epaiketaren lehen zantzuak 2012ko irailaren 13an hasi ziren, Espainiako Estatuako Abokatuak Gazteluko Udalaren aurkako salaketa jarri zuenean. Bertan, Tolosaldeko herri horretako udaletxean Espainiako banderarik ez zutela jarri salatzen zuen estatu ordezkariak. Hain zuzen ere, Carlos Urkijo Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Gobernua duen ordezkariaren aginduaren aurrean, Gazteluko Udalaren «ekintza eza» salatzen zuten epaitegiaren.

## «Seriotasun gutxiko frogak»

Errekurtsoa tramitera onartu eta epaiketa bidean jarri zen. Alde batetik, Espainiako estatuak bere argudioak aurkeztu zituen, eta bestetik, udalak defentsari ekin zion. Salatzaileren frogak zeresana eman dute epaiketean. Epaileak, «zorrotasun eta seriotasun gutxikoak» izan direla onartu du epaian, eta udaletik zehaztu dute froga horiek nolakoak ziren, hain zuzen ere, Iñaki Basasoro abokatuaren bitartez: «Argazki baten fotokopia aurkeztu zuten».

Zeresana eman zuen bigarren puntua, Espainiako Estatuako Administrazio Orokorraren eskaria izan zen. Gazteluko Udaleko abokatuak honela azaldu du: «Eurek epaileari Espainiako bandera jartzeko agindua eman zezan eskatzen zioten. Horretarako ordea, udalaren ekimen ezaren aurka jo behar zuten lehenik eta behin, baina urrats hori ez zuten eman. Udalak horren inguruan hartutako erabakia atzera botatzea eskatu behar zuten lehenik eta behin, ondoren epaileari egin behar zena esateko. Pauso hori saltatu egin zuten, eta ondorioz, prozedura akats bat egin zuten».

Bi puntu horiek kontuan hartuta, epaileak Espainiako estatu

ordezkariaren eskaria atzera bota zuen, eta jakinarazpena apirilaren 19an bidali zion Gazteluko Udalari. Orain, bi aldeek epai horri helegitea jartzeko aukera daukate, eta horretarako azken eguna maiatzaren 13a izango da.

Aferak auzitegiaren jarraitzeke bi aukera daudela dio Iñaki Basasorok: «Alde batetik, epaia helegitea jartzen baldin badiote, eta bestetik, epaiketa berri bati hasiera ematen baldin badiote». Lehen kasuan, epai berri bat urtebete ingurura etorriko litzateke, eta bigarren kasuan, bi urte edo hiru pasako lirateke agindua iritsi aurretik, tardean, balizko epaia helegitea jartzeko aukera egongo bailitzateke. Basasorok argitu duenez, orain helegitea sartuko balute, epaiketa bera eta epailearen erabakia aztertuko litzateke, ondorioz, froga berriak aurkezteko aukerarik ez litzateke egongo: «Epailearen epaia sendoa da, eta horri buelta ematea ez zaie hain erraza egingo. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar non eta noren aurka ari garen jokatzeko».



Gazteluko udaletxean ikurrinak ez du beste ikurrik izango alboan. A. IMAZ

## BERRIA egunkarian udan KAZETARITZA PRAKTIKAK egiteko deialdia

### PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 14an

TOKIA: Andoaingo Martin Ugaldokultur parkea.

ORDUA: 16:00etan

#### BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 14an

TOKIA: EH-Uko Leioako Giza eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 30. gelan

ORDUA: 12:00etan

#### ARABAN

EGUNA: maiatzaren 14an

TOKIA: BERRIAREN Gasteizko egoitzan (Bazentza Moxel, 6, behean).

ORDUA: 09:30etan

#### NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 14an

TOKIA: BERRIAREN Iruñeko egoitza (Iratzeko monasterioa, 45, eskulainako eskailera, 13. ezkerria)

ORDUA: 10:00etan

**Probara curriculuma ekarri behar da**

**TOLOSALDEKO HASTOLAK**

**Ongi etorri Ikastolara**

94 67 36 29

94 68 71 22

Aurrematrikula

Esan  
Maiatzaren 25k 14ra  
Alo irekiak  
Maiatzaren 26n 17:30ean  
Usabalgako Areato Nagusiari

# Elkartasun Eguna ospatuko da igandean preso eta iheslarien alde

Elkartasun Egunarekin batera, VII. Gorostidi Harria jokatuko dute hamar harri-jasotzailek 18:00etatik aurrera, Adunako frontoian

Goizeko bederatzietatik iluntzera bitarte egitarau zabala antolatu du Herrira-k

**Mikel Iraola** Aduna

Euskal preso eta iheslariak etxeratze helburua duen Aiztondoko Elkartasun Eguna ospatuko da igandean, hilaren 5ean, Adunan. Egun oso egitaraua antolatu du Aiztondoko Herrira mugimenduak, eta horiei, arratsalde horretan Adunan bertan jokatuko den VII. Gorostidi Harria txapelketa gehituko zaie.

Goizeko bederatzietatik emango zaio hasiera egunari, ordu horretan, ikurrinaren margoketa egin-

go baita. Bi ordu beranduago, hamaiketako banatuko da Txulobi elkartearen. Jarraian, udal hautesle prentsaurrekoa emango dute euskal preso eta iheslariak etxeratzearen alde.

Eguerdiaren, pilota partidak jokatu dira frontoian, eta bazkal aurretik, 13:00ak aldera, ekitaldi nagusia ospatuko da. Bazkaria, 13:30ean egingo da pilotalekuan, eta joan ahal izateko beharrezkoa izango da ostirala baino lehen tike-tak erostea. Hauek, Adunako Uztartza, Asteasuko Iturriondo, Zi-

zurkilgo Iriarte eta Villabonako Iratzar tabernetan daude salgai, hamazazpi euro (helduek), eta zortzi euroren (gazteek) truke. Laetan, haur jolasak izango dira.

## VII. Gorostidi Harria

18:00etan, Muxkil elkartearen antolatzen duen Gorostidi Harriaren VII. edizioa jokatuko da frontoian. Aimar Irigoien, Joseba Urrutia, Unai Lertxundi, Urpe, Urtzi Telleria, Izeta III., Iban Ugartemendia, Jokin Eizmendi, Joseba Ostolaza eta Aimar Galarraga izango dira parte hartuko duten harri-jasotzaileak.

Aurten, bakoitzak, bi eskuen laguntzaz, 175 kiloko harriarekin ahalik eta altxaldi gehien egin behar harko ditu bost minutuz. Horrez gain, esku bakarrez 185 kiloko zilindro zaharra altxatzea lortzen duenarentzat sari berezia izango da. Duela 32 urte lortu zuen Iñaki



Pasa den urtean, Asteasun ospatu zen Aiztondoko Elkartasun Eguna. M.6.

## ↓ Egitaraua

### ELKARTASUN EGUNA

- 9:00. Ikurrinaren margoketa.
- 11:00. Hamaiketako Txulobi elkartearen.
- 11:30. Prentsaurrekoa.
- 12:00. Pilota partidak.
- 13:00. Ekitaldi nagusia
- 13:30. Herri bazkaria pilotale-

Gorostidi adunatarra, 77 kilo pisatzen zituela. Harrez geroztik inork ez du hori lortu.

Txapelketa hau ikusteko, ikusleek borondatea besterik ez dute

kuan. Tiketak salgai Adunako Uztartza, Asteasuko Iturriondo, Zizurkilgo Iriarte eta Villabonako Iratzar tabernetan.

- 16:00. Urmeentzako jolasak.
- 18:00. Gorostidi Harria frontoian. Altxaldi berezia elkartasun egunarekin bat eginez.
- 19:00. Poteo alaitua.

ordaindu behar. Urtean ia 700 bat lagun biltzen dira Adunako pilotalekuan.

Egunari amaiera emateko, poteo alaitua egingo da.

**Iñaki Gorostidi** • Harri-jasotzaile eta boxeolari ohia, eta artisaua

## «Marka apurtzea ona izango da harri-jasotzearentzat»

**M. Iraola** Aduna

Harri-jasotzaile eta boxeolari izandakoa da Iñaki Gorostidi (Aduna, 1956). Emaitzarik hoberenak, ordea, harri-jasotzaile modura lortu zituen. 185 kiloko zilindro zaharra esku bakarrez altxa zuen, 27 urterekin, eta 77 kilo zituela. Inork ez du marka hori hobetu. Igandeko VII. Gorostidi Harria izango dute aukera hori 10 harri-jasotzailek.

**Zer dela eta, harri-jasotzearen inguruko zaletasuna?**

Aitaren partetik, batez ere. Etxean asko jarraitzen ziren herri kirol-

lak, eta bertan entzutek sortu zitzaizdan grina hori. Orduan futbolak ez zuen hainbesteko oihartzunik. Hamalau urterekin 100 kiloko zakuak jasotzen hasi nintzen, eta pixkanaka mundu honetan sartzen joan nintzen.

**Harri-jasotzen hasi, baina boxeolari moduan jarraitu zenuen hogei urterekin. Nolatan aldaketak hori?**

Egia esan ez dakit. Dena den, ez nintzen denbora askoz aritu. 33 konbate jokatu nituen profesional gisa. Horietatik 16 irabazi nituen, beste 6 baliogabeak izan ziren, eta gainontzekoak galdu nituen.

**Boxeotik berriro ere harri-jasotzera. Gogoan duzu 185 kiloko harria esku bakararekin altxa eta marka berri hura ez zari zenueneko eguna?**

Bai, nola ez. Tolosako Beotibarren izan zen. Egun berean, 208 kiloko zilindro zaharra jaso nuen bi bider, 185koa altxa aurretik. Astakeria bat izan zen. 208ko harria igo ondoren, indarririk gabe geratu nintzela uste nuen, baina lortu nuen. Harrez geroztik ez du inork lortu.

**Zer egin behar da horrelako harri bat jasotzeko? Nola prestatu zinen?**

Orain egiten den bezala ez behintzat. Ez nintzen gimnasiara joaten, mendira baizik. Harriekin asetzen bitan aritzen nintzen. Jana ere zaintzen nuen, besterik ez. Lesioek ere errespetatu ninduten hasieran, eta hori garrantzitsua izaten da kirolari batengan.

**Dena den, lesio batek erretiroa hartzea behar zintuen, ezta?**

Bai, motozerrarekin tendoiak moztu nituen, eta ondoren ez nengoen lehiatzeko moduan.

**Noizpait damutu izan zara boxeora aldatu izanaz?**

Hogei urterekin eta hirurogeirekin ez da berdin pentsatzen. Baina baldetatu izan ditut neure buruari jarraitu izango banu zer gerta-



Gorostidi bere tailerlean. M. IRAOLA

tuko ote zen. Uste dut, 80 kilo baino gutxiago izanda, 200 kiloko harria esku bakarrez altxatzea lortu nezakeela.

**Gorostidi Harria txapelketak arrakasta lortu du...**

Bai, gustura gaude. Duela zazpi urte, errekorra lortu nuela 25 urte betetzen zirela alkateari zerbait berezia egitea gustatuko litzaidakeela esan nion. Hark Muxkil elkartearekin harremanetan jarri zidan. Jende asko biltzen da eta hori ona da.

**Igandean harri-jasotzailearen batek marka puskatu lezakeela uste duzu?**

Txapelketa antolatu dugun zazpi urte hauetan ez du inork lortu. Badakit Ostolaza eta Irigoien saiatzekotan dabiltzala, eta lortzeko aukerak ikusten dizkiet.

**Puskatuko balute, poza sentituko zenuke?**

Alde batetik bai eta besteik ez.

Kontutan hartu zeure den marka puskatzen dutela. Dena den, nik 77 kilo nituela egin nuela, hau da, nire bikoitza gehi 31 kilo. Proporzioan hauek ez lukete hori lortuko. Hala ere, poztuko nintzateke, harri-jasotzearengatik, bide onetik doala esan nahiko baitu.

**Nola ikusten duzu, bada, une hauetan harri-jasotzea?**

Ez oso ondo. Okerrago ere egon izan da. Geldirik geratu da eta aldatetarik behar ditu berriz ere jendea harrapatzeko. Gazteen kasuan, adibidez, badaude, baina uste dut aizkorarekin alderatuz gero, aizkorak indar gehiago duela gazte horiek harrapatzeko. Hala ere, uste dut, denboraren arabera, izango dela. Fase ezberdinak izaten dira, onak batzuk, txarrak besteak, eta une hobeak etorriko dira, segurua. Harri-jasotzea behintzat, galdu ez da egingo.





**TOLOSALDEA GARATZENEK LANBIDEREKIN LANKIDETZAN KANPOMERKATARITZA ETA MARKETING-INTERNAZIONALAREN INGURUKO KURTSSOA MARTXAN JARRIKO DU DOHAINIK ESKUALDEKO 15 LANGABETURENTZAT.**

Profila: Lizenziatura, ingeniari eta arkitekura. Enpresen-administrazio eta -zuzendaritza, ekonomia, eta zuzenbide-ekonomikoko lizenziatura, eta ingeniari eta ikasketadunek lehenetsuna izango dute.

Baldintzak: Langabezian egotea. Ingelesko ezagutza ertaina eta profil komertziala. Beste hizkuntzen ezagutza baloratu da. Eskualdeko bitanleek lehenetsuna izango dute.

Kurtsoko egutegia eta ordutegiak: maiatzaren 2tik irailaren 27ra, 08.00etatik 15.00etara bitartean.

Izena emateko: TOLOSALDEA GARATZEN, LEHIBERRI Zentroa. Apatareerka Industriegunea, TOLOSA. Tfno. 943 65 45 01

Epea: 2013ko maiatzaren 6a arte. **AZKENEKO PLAZAK!!!**



# Eskualdeko lehen festak hastear dira

Asteasuko Elizmendi auzoan eta Orexan Santa Kruz jaiak ospatuko dituzte asteburuan

## Iñigo Terradillos

Asteasuko Elizmendi auzoan eta Orexan festa giroa nagusituko da datorren asteburuan. Urteko lehen jaiak ospatzen dituzte bi herrietan, eta bai batean zein bestean ederki pasatzeko osagairik ez da faltako.

Hiru eguneko festei etzi emango diete hasiera Orexan. Hain zuzen ere, dianak iragarriko du jaien hasiera, eta ondoren, ohiko moduan, oilarraren jaitsiera



Pasa den urteko Simonen jaitsierako une bat. IT.

egingo dute. Bertsoak eta pilota uztartuko dira ondoren, eta pintxoan arteko lehia ere izango da. Gauean, musika izango da goizaldera arte. Larunbatean gaztetxoentzat hainbat ekitaldi izango dira, eta afariaren ostean musika izango da, La Jodedera taldearekin, eta azken egunean dantza eta bertsoak nagusituko dira.

Asteasun, bestalde, Simonen jaitsierarekin hasiko dira festak larunbatean. Haurrentzat duatloia eta jolasak izango dira, eta ondoren, afarian bilduko dira denak. Gauean, erromeria izango da. Igandeko plater handia herri kirolak izango dira. Trikitilarien doinuek alaituko dute ikuskizuna, eta Simonen igoerarekin datorren urtera arte agurtuko dituzte jaiak.

## → Laburrak

### Gazteentzako etxebizitzak ikusteko aukera, bihar

**IBARRA** ▶ Gazteei zuzenduriko etxebizitzetan izena emateko aukera dute 18 urtetik 35 urte bitarteko ibartarrek. Maiatzaren 10a dute horretarako azken eguna. Bestalde, etxebizitzak ikusi nahi dituenak bihar du horretarako aukera. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara atek zabalik izango dira nahi duen ororentzat.

### Sorturen herri batzarra izango da bihar, Aurreran

**LEITZA** ▶ Leitzako Sorturen herri batzarra izango da bihar, 19:30ean, Aurrera elkartearen. Nafarroako egoera politikoaren azterketa, gatazkaren konponbidea, Nafarroako zerrendetarako irizpideak eta maiatzaren 30erako greba izango dira eztabaidatuko dituzten gaiak.

### Udaberriko merkaturako postua jartzeko aukera

**BERROBI** ▶ Udaberriko merkaturako egingo dute Berrobin, maiatzaren 19an, bertako produktuekin, artisautzarekin eta bigarren eskuko gauzeekin. Bertan postua jarri nahi duenak 626 737 049 zenbakira dei dezake.

### Argazki Rallyan parte hartzeko izen ematea

**BERROBI** ▶ 23. Aste Kulturala egingo dute Berrobin maiatzaren 13tik 19ra. Ekitaldi ugari izango dira, eta tartean Argazki Rally herrikoa. Bada, bertan parte hartu nahi duenak bihar eman beharko du izena udalategian, 18:00etan. Gaia bertan emango diete parte hartzaileei, eta hauek astebeteko epea izango dute argazkiak egiteko. Gehienez hiru argazki aurkeztu ahaliko dira. Argazki kamara bat jasoko du 16 urtetik beherako irabazleak eta gorakoak nekazalturismo batean asteburua.

## ↓ Egitarauak

### ASTEASU

#### MAIATZAK 4, LARUNBATA

- **16:30.** Mus txapelketa herrikoa. Izen ematea 15:45etik 16:15era. 16:20ean zozketa, eta 16:30ean txapelketaren hasiera. Bikoteko partaide batek asteasuarra izan behar du.
- **16:30.** Txupinazoa eta Simonen jaitsiera.
- **Ondoren.** Duatloia haurrentzat: mendiko txirridularitza eta krosa.
- **Ondoren.** Haur jolasak.
- **19:00.** Haurrentzat zezen txiki eta poneyak.
- **20:30.** Herri afaria erretore etxean.
- **23:00.** Erromeria, Ansozregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin.
- **Goizaldera.** Txokolatea.

#### MAIATZAK 5, IGANDEA

- **11:30.** Meza Santa Kruz ermitan.
- **Ondoren.** Hamaiketako eta toka txapelketa, Laja eta Mikel trikitilarien doinuek lagundurik.
- **17:30.** Herri kirolak: Lapazaran Iparraldeko jokoak (lasto altxatze, lasto jaurtiketa, ingudea...)

eta Jagoba Otaegi harri-jasotzailea.

- **Ondoren.** Laja eta Mikel.
- **20:00.** Simonen igoera.
- **Ondoren.** Laja eta Mikel.

### OREXA

#### MAIATZAK 3, OSTIRALA SANTA KRUZ EGUNA



Herri kirolak pasa den urteko jaietan, Orexan. ERIKA SARASOLA

- **11:00.** Diana herriko txistulariekin.
- **12:30.** Oilar jaitsiera.
- **13:00.** Bertso pilota. Pilotariak: Etxeberria-Urruzola, Urneta-San Sebastianen aurka. Botileroak: Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia.
- **14:30.** Pintxo Lehiaketa.
- **Bazkalostean.** Txiki eta Jon Plazaolaren bakarriketak.

■ **18:00.** Oresa-Lizartza-Ikaztegieta eskola arteko areto futbol saioak.

- **Ondoren.** Afari merienda Eneeritz eta Eider trikitilariarekin.
- **Ondoren.** DJ Bull.

#### MAIATZAK 4, LARUNBATA

- **11:00.** Umeen udaberriko pilota topaketa.
- **16:30.** Urme jolasak eta puzgarriak.
- **19:30.** Batukada emanaldia herrikoen eskutik.
- **21:00.** Herri afaria.
- **Ondoren.** La Jodedera eta DJ Bull.
- **Tartean.** Haundi jolasak eta baratzuri zopa.

#### MAIATZAK 5, IGANDEA

- **12:30.** Ozenki Tolosako txistularien emanaldia.
- **17:30.** Lizartzako Otsolar dantza taldearen emanaldia.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa ISK&Bila txarangak alaiturik.
- **19:30.** Bertso saioa: Julio Soto, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Sustrai Kolina.
- **Ondoren.** Festen amaiera eta oilarraren igoera.

## 📍 Hilberriak eta urteurrenak

# ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### ANGEL OSA MARTIJA

Atzo hil zen Zumasan, 78 urte zituela.

-Golan bego-

Zu joanean penaren mailak  
hamalaka begi busti da  
Alaitzen gara jantzi eukero  
izan zenari begira  
Aitola, lagun ona,  
gizon onoa guztia  
Estali arren ez da itzaltzen  
izanak duen doroia.

Bilobak: Igor, Larraitz, Zohartzte, Nahikari, Enaitz, Udane, Jokin, Aimar, Ugaitz eta Ander.

IBARRA, 2013ko maiatzaren 1a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduña, Albiztur, Alegia, Altxo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Udalak eta Tolomendik azokak dinamizatzeko hitzarmena sinatu dute

Tolosako Udalak eta Tolomendi Landa Garapenerako elkarteak urtebeterako langile bat kontratatuko dute

**Eredakzioa** Tolosa

Tolosan Zerkausiko nahiz Berdura Plazako azokak dinamizatzeko helburuarekin, hitzarmena sinatu berri dute, Ibai Iriarte Tolosako alkateak eta Antonio Artola Tolomendi Landa Garapenerako elkartearen lehendakariak; hitzarmena urte betean egongo da indarrean.

Akordioari esker, dinamizatzailer lanetan ariko den langile bat kontratatuko dute, eta besteak beste, Zerkausiko azoka teknologia berrietara zabaltzeaz arduratuko da.

Horrez gain, ordea, azokan postuak jartzen dituzten baserrita-



Ibai Iriarte eta Antonio Artola, hitzarmena sinatzen. HITZA

rrei prestakuntza eskainiko die dinamizatzailer honek: bai teknologia berrien bidez euren produktuak ezagutarazteko, eta baita azokan jartzen dituzten postuak erakargarriago egiteko ere.

Azkenik, larunbateroko Tolosako azokan salgai izaten diren

produktuak sustatuko ditu langile berriak, eta gainera, sare sozialen bitartez ezagutzera emango ditu.

Bide honetan, joeran dagoen turismo gastronomikoa ere bultzatuko dute.

• tolosa@hitza.info

## Agurrak

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**Udaberri fest jaialdia, prezio ezin hobean!**

**Uda Berri FEST**

UDABERRI FEST JAIALDIA ZARAUZKO ZUREKIN elkarteak antolatutik Nafarroa kalea 3, behea Zarautz 20800 GIPUZKOA Tel.: 685-757 297 [www.udaberriest.com](http://www.udaberriest.com)

Prezioa **12€**

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) **berria** taldea

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

■ **Abaltzisketa.** Larre irekiera eguna ospatuko dute, Larraitzen. 09:00etan, Topagunea izango da, eta 10:00etan, postuetan irekiera eta trikitilariak izango dira festa gunean.

11:00etan, Oscar Ferrer zaldi domatzaile errioxarraren erakustaldia izango da. 11:30ean, Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako lehiaketa izango da eta era berean, Ausa Gazteluko mendian eta Larraitzeko festa tokian ekitaldiak egingo dira.

12:00etan, Aralarko larreak irekitzeko suzuria botako dute. Ondoren, Jose Mari Esnaola aizkolariaren saioa bost metroko altueran eta zintzilikuturiko enborra ebakitzen. Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak ere izango dira.

13:00etan, mendizaleei ongi etorria egingo diete. 14:30ean, bazkaria izango da, eta 17:00etan, Triki Beltz taldearen eskutik erromeria izango da.

Arratsaldean zehar abereen erakusketa egingo da.

■ **Amasa.** Amasa-Villabonako Udalak antolatuta, bigarren urteaz, Amasako Komizarren abereak larreetara igokor dituzte.

■ **Baliarrain.** Txekor jatea izango da 14:00etan. Aldez aurretik, Aramako lore zaina egongo da, eta 13:00etan, herri kirolak izango dira: Azurmendi-Otaegi aizkolariak, eta Etxeberria-Astondoa, Gorostidi-Intxausti, Gabirondo-Esnaola eta Iraola-Garmendia trontzan ariko dira. Bazkal ostean, Unai Iraola eta Jokin Garmendiaren ikuskizuna izango da.

■ **Amasa-Villabona.** Ernai gazte antolakundearen eskutik, 17:00etan, Amasa-Villabonako plazatik abiatuta, Bizikleta Mar-txa egingo dute.

■ **Tolosa.** Ernai gazte antolakundearen eskutik, 19:00etan, Tolosako Plaza Berrian ekitaldia izango da.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak izango da*, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, [kuadrillaeguna2013@gmail.com](mailto:kuadrillaeguna2013@gmail.com) helbide elektronikora bidali behar dira.

## Harpide egiteak saria du

Egin HITZAREN harpidedun apirilaren 1etik

maiatzaren 31ra arte, eta jaso

**OPARI**

**Basoa banaketak eskaintako 3 ardo botila**



eta

Harpidedun gutzien artean

**Arete Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU**



**Harremanetarako:**

902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

**hitza** info